



AGINDUA, 2017ko uztailaren 10 (e)koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena; horren bidez hasiera ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeko legea aldatzeko legearen proiektua egiteko prozedurari.

1. Xedea eta helburua

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztuta dauka arau honek ahotan dituen xedapen orokorrak prestatzeko zer prozedura bete behar den.

Agindu honen bidez abiarazten den araua lantzeko prozeduraren barruan, ezinbestekoa da hasiera-hasieratik erabaki formal bat hartzea araua egitearen bidez kotasunari buruz. Erabaki hori ez da betekizun formal hutsa izango, egitekoa den arauaren beharrari eta bideragarritasunari buruzko hausnarketa baizik.

Aipatutako 8/2003 Legearen 4. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da. Hasierako aginduaren betekizunak eta gutxieneko edukia ere ezartzen ditu.

Administrazio Publikoen giza baliabideak dira horien funtzionamendu egokia ahalbidetzen duten eta zerbitzu publikoen kalitatea bermatzen duten elementuak. Horrenbestez, beren antolamendua eta egitura bereziki garrantzitsuak dira.

Otsailaren 25eko 1/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzekoak (2004ko martxoaren 5eko EHAA, 45. zk.), apirilaren 21eko 5/2016 Legearen bidez aldatuak (Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzekoak, 2016ko apirilaren 27ko EHAA, 79. zk.), kidego, eskala eta espezialitateetan islatu zituen profil profesional desberdinak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Funtzio Publikora sartu eta sustatzeko eszenatokia argitze aldera.

Urteotan guztietan, lanpostuen zerrenden bidez antolatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko giza baliabideak. Horietan, profil profesional desberdinak zehaztu dira, kasuan kasuko lanposturako eta jarduera-arlorako.

Kontuan hartuta harrezkero denbora igaro dela, taldeak eta azpi-taldeak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritako sailkapen berrira egokitu behar direla, titulazio berriak sortu direla, eta lanpostu jakin batzuen profil profesionala eguneratu egin dela, beharrezkoa da proposatutako lege-aldaketa egitea.

Legearen proiektuak eskala-egituran islatu nahi du antolamendu hori, behar bezala egituratuta. Hartara, erakundearen beharrianen arabera koherenteak diren bideak erabili nahi dira lanpostuen hautaketa eta hornidura arrazionalizatzeko.

2. Proposatutako arauketaren edukia

Aurkeztutako proposamenarekin eskala-kopuru mugatu bat sortu nahi da titulazioak multzokatzeko, lanbide-esparru horiek alor bat baino gehiagoko profesionalek bete ditzaketelako. Eskala horiek sortzea ezinbestekotzat jotzen da funtzionarioen kokapena ezarri eta hautaketa-eszenatokia finkatzeko, erakundearen beharrianen arabera.

Halaber, sortutako eskala berrietan sartzeko prozedurak jasoko dira xedapen osagarrietan.

3. Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Lege-egitasmo honek badu bideragarritasun juridiko nahiz materiala, Euskadiko Autonomia Estatutuak definituta daukan eskumenen banaketaren arabera (10.4. artikulua).

Onartuko den arauak lurralde historikoetako foru-organismoen eskumenak errespetatu beharko ditu; Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuaren 37. artikuluan eta Espainiako Konstituzioaren lehenbiziko xedapen gehigarrian onartuta dagoen foru-bermeen arabera. Era berean, antolamendu juridikoak onartzen duen toki-administrazioaren autonomiaren esparrua ere errespetatu beharko du.

4. Ordenamendu juridikoaren gaineko ondorioak

Araua onartzean, aldatu egingo da 1/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak antolatzekoa.

5. Arau-proiektuaren eragina aurrekontuan

Lege honen aplikazio-eremuan sartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioak.

Legedi-aldaketa horrek ez du gasturik sortzen, eta, beraz, ezin da hura indarrean jartzearen ondorioz aurrekontuetan diru-sarrerarik edo gasturik zenbatetsi, eta ez dago finantzazio-iturrietara eta baliabideetara jotzeko gastuen finantziazorik, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik at.

Lege honek ez du diru-laguntzen programarik lantzen; hortaz, kasu honetan ez dagokio programak zenbateraino gauzatu eta bete diren ebaluatzea.

Lege honetan jasotako aurreikuspenek ez dute eraginik merkatu erkideko lehia librean, ez baita bat ere eragiten erregimen horretan garatzen diren jarduera ekonomikoen gainean. Horrenbestez, ez da beharrezkoa Europar Batasunean izapiderik egitea.

Lege honek ez du eragin ekonomikorik izango beste administrazio batzuetan edo gizartean.

6. Egin beharreko tramiteak eta txostenak

Legearen proiektua idazteko, agindu honetan esandakoa hartuko da oinarri, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara hobekien egokitzen diren aukera guztiak, bai eta aurreikusitako araudia egoki eta legezko izango direla ziurtatzeko egingo diren kontsulten emaitzak ere.

Lege-proiektua idatzi ondoren, haren testu elebiduna Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren esku utziko da, onartu edo ez erabaki dezan, hori egin behar dela agintzen baitu Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartu zuen erabakiak.

Xedapenaren testua Legebiltzarrera igorriko du, aurretiazko onarpena eman duen Agindua ezarri denean, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak (Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzekoak) 56.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Generoaren araberako eraginaren ebaluazioaren txosten bat egingo da, horretarako oinarri gisa hartuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulua eta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak ezarritakoa. Erabaki horrek genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzen ditu eta neurriak hartzen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerrarazi eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.

Era berean, 8/2003 Legeko 7.3. artikulua arautzen duena betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak txosten juridiko bat egingo du, arau-asmoaren funts objektiboa aztertzeko, haren edukia legearen eta zuzenbidearen araberakoa den zehazteko eta araugintza-teknikaren irizpideak betetzen dituen argitzeko.

Indarreko legeriaren arabera, nahitaezko txosten hauek eskatu behar dira:

1. Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 6.1.a) artikulua bidez zuzendaritza horri agintzen dionaren barruan eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuak 17.a) artikuluan arautzen duenari lotuta.
2. Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 11.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.
3. EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 19 -22 bitarteko artikuluetan xedatutakoa betetzeko.
4. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak 2. artikuluan agindutakoari jarraituz, xedapen

orokorrekin euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko.

5. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena, Bulegoko zuzendariak 2005eko azaroaren 28an onartutako ebazpeneko 5.3.b) artikuluekin bat.
6. Ekonomia- eta arau-kontrolako txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandakoa, aintzat hartuta zer arautzen duten ekainaren 30eko 14/1994 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak) III. tituluko III. kapituluak, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomia kontrola eta kontabilitatea garatzen dituenak), eta bat etorrita apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuak (Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak) 4.a) artikuluan xedatzen duenarekin.
7. Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak emandako txostena, aintzat hartuta zer arautzen duen Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989ko Legearen 8. artikulua.
8. EAEko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 3.1.d) artikulua betetzeko.

Eusko Jaurlaritzako sailei eta haren erakunde autonomoei kontsulta egingo zaie, bidezkoztat jotzen dutena alegea dezaten, lege-proiektuekin lotuta.

Era berean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (Enplegatu Publikoaren Oinarritzako Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duenak) 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu publikoan ordezkariek dituzten sindikatu eta erakundeekin negoziatu behar da, Euskal Funtzio Publikoari buruzko indarreko Legeak (uztailaren 6ko 6/1989 Legeak) VI. tituluan xedatutakoari jarraikiz.

Jendaurreko informazioaren izapidea gauzatuko da, testua herritarrengana (orokorrean) eta elkargo profesional eta elkarte profesionalengana (zehazki) iristen dela bermatzeko. Ez dago Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egin beharrik.

Arau-proiektuaren izapideak bukatuta, eta Gobernu Kontseiluak araua onartu baino lehen, prozedura osoaren memoria labur bat prestatuko da. Memoria horretan aurrekariak eta egindako izapideak jasoko dira, 8/2003 Legearen 10.2 artikulua ezarritakoarekin bat etorrita.

7. Idazketa elebidunerako metodoa.

Sistema hau erabiliko da azaroaren 24ko 10/1982 Legeak (euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzakoak) 8.1. artikuluan xedatu duena betetzeko: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko IZO-Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpena.

Adierazitakoaren ildotik, eta aintzat hartuta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8. artikulua zein Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek diotena, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Prozedurari hasiera ematea

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeke legea aldatzeko Legearen Proiektua egiteko prozedura has dadin agintzea, agindu honetan finkatutako helburuak eta irizpideak betez.

Bigarrena.- Izapidetzeko organoa izendatzea

Funtzio Publikoko Zuzendaritza izendatzea goian aipatutako legegintzako prozedura izapidetzeko ardura duen organoa izateko.

Hirugarrena.- Legesarea lankidetza-esparruan zabaltzea

Agindu hau Legesarea izeneko lankidetza-gunearen bitartez zabaltzea, Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa betez (erabaki horretan xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartu ziren).

Laugarrena.- Prozedura

Zer kontsulta egin adostea, eta taxutu nahi den arauaren edukiari eta helburuari egokitzen zaion testua idazteko beharrezko ikerketak eta txostenak eskuratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko 10 uztailaren (a)

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO